

## 6. IKASGAIA ZOR-AGIRIA ETA TXEKEA

### Laburpena

#### 1. ZOR-AGIRIA

- 1.1. Funtzio ekonomikoa
- 1.2. Kontzeptua eta ezaugarriak

#### 2. TXEKEA

- 2.1. Fondoaren hornidura eta xedagarritasuna
- 2.2. Faltsutasuna eta faltsifikazioa
- 2.3. Formazko elementuak
- 2.4. Data
- 2.5. Txekia igortzeko moduak eta zirkulazioa
- 2.6. Beste aipamen batzuk
- 2.7. Akzioak eta preskripzioa

#### 1. ZOR-AGIRIA (*pagaré, billet à ordre, promissory note*)

Historikoki ganbio-letraren aurretik sortu zen. Erdi Aroan diru-trukea egiten zutenek (*campsoreek*) dokumentu notarial bat igortzen zuten jasotako diru-kopururaren baliokidea beste moneta eta leku geografiko desberdin batetan ordaintzeko konpromezua hartuaz. Bi elementu nagusi biltzen zituen dokumentu hark: balore-klausula (*'jaso dut'*) eta ordainketa-promesa (*'ordainduko dut'*). Baina gero ganbio-letra ordainketak egiteko tresna bihurtu zen, igorpenduaren zorrak beranduago ordaindu ahal izateko. Dena den, onarpenaren klausula ezartzeak igorpendua obligatu ganbiario bihurtzeko aukera ekarri zuen eta hauxe izan da, hain zuzen, ganbio-letra zor-agiriaren egiturara hurbildu duen elementua. Onarpenarekin igorpenduak ordainketa egiteko konpromezua hartzen du, igortzailearen mandatu-hartzaile izateari uzten dio eta ordainketaren erantzule bihurtzen da. Ez dezagun ahaztu, hori dela

eta zenbatetan ganbio-letrak onarpenarekin jaiotzen direla, hau da, ordainduko duen pertsonaren sinadurarekin.

Gaur egun ordainketak egiteko ganbio-letrak erabiltzetik zor-agiriak erabiltzera pasa gara. Dokumentu hau sinpleagoa da, ez da paper tinbratuan egiten eta gainera, nazioarte mailako merkataritzari dagokionez, gogora dezagun herrialde anglosaxoietan betidanik zor-agiria ganbio-letra baino gehiago erabili izan dela.

Zor-agiria pertsona batek (*sinatzaileak*) beste bati (*onuradunari*) edo beste baten agindura, egun jakin batetan zenbateko jakin bat ordaintzeko obligazioa adierazten duen dokumentu endosagarria da. Ganbio-letrarekin alderatuaz, hemen igortzaileak ordainketa-mandatu egin beharrean ordainketa-promesa egiten du.

SINATZAILEA -----	ONURADUNA -----	Edukitzailea
Igortzaile Onartzaile (LCCh 97.art.)	Hartzaile	

### 1.1. Funtzio ekonomikoa

Funtzio ekonomiko nagusia merkataritzako eragiketak finantzatzea da. Kasu hauetan, dirua entregatu beharrean zor-agiria entregatzen da, ordainketa geroratuaz baina ziurtasunez. Adibidez, supermerkatu handiek igortzen dituzte zor-agiriak hornitzaileei ordainketak egiteko epeak inposatuaz. Gainera, gehienetan '*agindura ez*' izaten dira. Horrek esan nahi du zor-agiriaren transmisioak kreditu-lagapen arruntaren efektuak izango dituela. Gonbara ditzagun bi egoerak zor-agiriarena eta ganbio-letrarena.

Ganbio-letra	( <i>balutazko harremana</i> )	
Hornitzailea / Igortzailea -----		Edukitzailea
( <i>hornidurako harremana</i> )		
Supermerkatua/ Igorpendua		

**Zor-agiria**

Supermerkatua ----- Hornitzailea -----  
 Edukitzailea

\* Hemen hornitzailea eta supermerkatuaren arteko harremana balutazkoa da, hornidurako harremana desagertu egin da.

Beste batzutan, zor-agiria krediturako tresna moduan ere erabiltzen da, dirua lortzeko helburuarekin. Bankuekin egiten diren kreditu eta mailegu-kontratu askori lotzen zaio. Horrela, arazorik egonez gero, mailegu-emaileak judizio ganbentarioaren bidea erabili ahal izango du eta, bere kasuan, azkartasunez enbargua lortu.

Mailegua ----- Deskontua  
 Sinatzailea ----- Hartzailea ----- Bankua

Mailegu-emaileak zor-agiria bankuan  
 deskonta dezake, kreditu-eskubide  
 autonomia duelako berekin

Dokumentu hau erabiltzen da ere lehenagoko zor bat aitortzeko eta hala frogatzeko.

Zorduna ----- Hartzekoduna  
 Sinatzailea ----- Hartzailea

**1.2. Kontzeptua eta ezaugarriak**

Legeak ez du definiziorik ematen baina LCCh 94 eta 95 artikuluetatik atera dezakegu kontzeptua. Zor-agiria titulu formal bat da, pertsona zehatz baten alde edota bere agindura diru-kopuru jakin bat ordainduko denaren promesa jasotzen duena. Ordaintzeko promesa garbia (puroa) eta sinplea da, baldintzagabekoa.

Dokumentuak behar dituen formaltasunak LCCh 94 artikuluan jasotzen dira. Posible da zor-agiria igortzea modu nominatiboan (*'agindura ez'*) edota *'agindura'*. Ez da posible *'eramaileari'* igortzea, baina zurizko zor-agiriak funtzio berbera betetzen du (Ik. Zurizko endosua).

Subjektuak honako hauek dira:

SINATZAILEA -----	ONURADUNA -----	Edukitzailea
Igortzailea Onartzailea (LCCh 97.art.)	Hartzailea	

Ganbio-letraren araudia aplikatzen zaio hainbat eta hainbat gaitarako: endosua, mugaeguna, ordainketa, akzioak, galera, preskripzioa, interbentzioa, aldaketak, abala, e.a. (LCCh 96 art.). Ordainketa ezagatik jar daitezken akzioak ere ganbio-letrari dagozkion berberak dira: akzio zuzena (sinatzailearen kontra), atzerabidezko akzioa (endosugileen kontra), ezbidez aberastearen akzioa eta akzio kausala.

## 2. TXEKEA (*cheque, chèque, check, draft*)

Txekea balore-titulu bat da. Honen bidez igortzaileak baldintzarik gabeko agindu bat zuzentzen dio banku bati (igorpendua) dokumentua erakusterakoan edukitzaile legitimoari diru-kopuru jaki bat ordain diezaion.

Beraz, txekea erakusterakoan ordaindu beharrekoa da (LCCh 134.I art.) eta igorpendua banku bat da (LCCh 108.II art.) baina ez dago onarpenik (ezin da onartu LCCh 109 art.). Bankuak txekea ordaintzeko duen obligazioa extraganbentarioa da (LCCh 108.II art.). Gainera, igortzailearen ordainketa-agindua errebokaezina da, txekea aurkezteko epealdia iragan arte (LCCh 138 art.) eta igortzaileak bankuan fondo xedagarri nahikoa eduki behar du (LCCh 108.I art.).

Txekearen funtzio ekonomiko nagusia ordainketak egitea da. Dirua entregatu ordeztze txekea entregatzen da. Baita ere erabiltzen da bankutik fondoak erretiratzeko. Txekearen sinatzaileak bankuko kontutik bertan adierazitako diru-

kopurua ateratzeko eskubidea ematen duen dokumentua da. Horretarako oinarri kausal batzuk behar dira: fondoen hornidura eta xedagarritasuna.

## 2.1. Fondoen hornidura eta xedagarritasuna

Bankuari fondoak aurreratu bazar zaizkio txekea ordain dezan. Beraz, beharrezkoa da igortzaileak txekea ordaintzeko adina fondo izatea eskura, xedagarri, bankuan. Horretarako egiten da fondoak xedatzeko ituna bankua eta igortzailearen artean. Txeke-kontratua kontu korronte kontratu bati lotua egoten da eta hau beste kontraturen bati (ad. gordailua, kreditu-kontratua). Txeke-kontratua medio bankuak bezeroari txeke-talondegi bat ematen dio.

Fondorik eta/edo xedagarritasunik gabeko txekea igorriz gero, txekea baliozkoa izango da (LCCh 108.I art.). Baina fondoek hornidurarik gabe txekea igortzen duenarentzat ondorioak ezartzen ditu legeak. Honek edukitzaileari ordaindu beharko dio: txekearen kopurua, hornitu gabeko kopuruaren %10 eta kalte-ordaina (LCCh 108.III art.).

Igorpenduak (bankuak) fondo xedagarri nahikoa baldin bada, modu egokian igorritako txekea aurkezten zaionean ordainketa egiteko obligazioa du eta berak daukan hornidura txekearen kopuru osoa ordaintzeko nahikoa ez bada, ordainketa partziala egitera behartua dago (LCCh 108.II art.). Bankuaren obligazio honen izaera extraganbiarioa da LCCh delakoan ezarrita egon arren.

## 2.2. Faltsifikazioa eta faltsutasuna

Txeke faltsua edo faltsutua ordaintzeagatik sortutako kalteak igorpenduari (bankuari) egotziko zaizkio. Hori da erregela orokorra. Baina igortzailea txeke-talondegiaren zaintzan zabarkeriaz aritu izan bada edota faltsifikazioa edo faltsutasuna bere erruz gertatu bada, kalteak berari egotziko zaizkio (LCCh 156 art.).

## 2.3. Formazko elementuak

Txekearen funtsezko ukanbeharrak LCCh 106 eta 107 artikulutan ezarritakoak dira. Horiez gain ager daitezke ere zenbait aipamen edo klausula: helbideratze klausula (LCCh 114 art.), 'konformatua' (LCCh 110 art.), 'gurutzatua' (LCCh

143, 144 art.), 'kontu bidez ordaintzeko' (LCCh 145 art.), 'gasturik gabe' (LCCh 147 art.), e.a.

#### 2.4. Data

Txekea erakustean ordaindu beharrekoa da ('*a la vista*') (LCCh 134.I art.). Baina ordainketarako aurkezpena egiteko epeak legez ezarrita daude (LCCh 135 art.) eta laburrak dira:

- 15 egun, Españan igorritakoa bada
- 20 egun, Europar Batasuneko beste estatu batean igorritakoa bada
- 60 egun, Europar Batasunetik kanpo igorri izan bada

Epe hauek laburrak direla eta, txeke postdatatutak eta aurredatatuak zilegi izan arren, zenbait arazo sor ditzakete. Txeke postdatatuaren kasuan, gerta daiteke txekean ezarritako igortze-data (ad. maiatzaren 5a) benetako igorpena baino (ad. apirilaren 5a) beranduagokoa izatea. Egun horren aurretik aurkeztuz gero (ad. apirilarn 10ean) txekea aurkeztutako egunean ordaindu beharko da (LCCh 134.II art.).

Bestetik, txeke aurredatatuaren kasuan, gerta daiteke ere txekean ezarritako igortze-data (ad. maiatzaren 25a) benetako igorpena baino lehenagokoa izatea. Honek zenbait problema ekar dezake edukitzailearentzat:

- ordainketarako aurkezteko duen epea laburragoa izango da (LCCh 134.I art.) edota epea amaituta ere egon daiteke (LCCh 135 art.).
- epea amaitu ondoren posible da igortzaileak txekearen errebokazioa egitea (LCCh 138.I art.)
- atzerabidezko akzioa gal dezake endosugile eta hauen abalemaileen kontra (baina igortzailearen kontrako atzerabidezko akziorik ez du galtzen, ik. LCCh 146.I art.).

Edozein kasutan, ordainketarako epea amaitu ostean igorpenduak ordainketa egin dezake. Ordainketa hau legezkoa da (LCCh 138.II art.).

#### 2.5. Txekea igortzeko moduak eta zirkulazioa

Txekea igortzeko aukera desberdinak ematen ditu legeak (LCCh 111 art.). Bertan ezar daiteke txekea ordainduko zaiola: pertsona jakin bati gainera

‘agindura’ (‘a la orden’) klausularekin; edota pertsona jakin bati, baina ‘agindura ez’ (‘no a la orden’) klausula jarriaz; edota, besterik gabe, ‘eramaileari’.

Gogoratu adierazpen honek eragina izango duela kreditu-eskubidearen transmisio-moduan. ‘Eramaileari’ igorritako txekea entrega edo *trattio* hutsaren bidez transmitituko da. ‘Agindura’ igorritakoa entrega eta endosuaren bidez transmitituko da. Aldiz, ‘agindura ez’ klausula duena kredituen lagapen-sistemaren bidez transmitituko da

## 2.6. Beste aipamen batzuk

Posible da txeke gurutzatua jaulgitzea (LCCh 143 art.) banku baten bitartekaritza bidez kobratzeko (LCCh 143 art.). Honen helburua da edukitzaile ez legitimoak txekea kobra dezan galeraztea (ad. txekea galtzen bada). Horregatik txekea banku batek aurkeztuko du ordainketarako eta berak kobratuko du bankuen arteko konpentsazio-sistemaren bitartez. Honekin galerazten da ere edukitzaileari dirutan ordaintzea.

‘Kontu bidez ordaintzeko’ (‘para abonar en cuenta’, ‘para contabilidad’) txekearen kasuan helburua da txekearen edukitzaileari dirutan ez ordaintzea, kontu bidez baizik.

‘Konformatua’ (‘conformado’, ‘visado’) klausulak adierazten digu fondo nahikoa badirela, fondoak erretentzen bait ditu bankuak txekea ordaintzeko. Baina hau ez da bankuak egindako onarpena. Kasu honetan bankuak izango luken erantzukizuna extraganbiarioa da (LCCh 110 art.).

‘Gasturik gabe’ klausula ere ezar daiteke eta kasu honetan ganbio-letraren araudia aplikatzen da (LCCh 147 art.). Dena den, kontuan izan behar da, txekearen kasuan protestoa edo deklarazio baliokidea egiteko epearen inguruan dauden berezitasunak (protestoa ordainketarako aurkezpena egiteko epea amaitu baino lehen, e.a.).

## 7. Akzioak eta preskripzioa

Txekearen kasuan onartzailerik ez dagoenez, ez dago akzio zuzenik baina bai atzerabideko akzioak igortzaile, endosugile eta abalemaileen aurka. Oro har, akzioa ganbio-letraren berbera da, nahiz eta berezitasun batzuk badituen,

esate baterako: protesta (LCCh 147art) edo preskripzio epeak (akzio guztiek sei hilabeteko preskripzio-epea dute, LCCh 157 art.), e.a.